# respuesta a txillardegi

# EN TORNO AL NACIMIENTO DE ETA

*Eugenio Ibarzabal*

**Ni ere, Txillardegiri MUGA-rekin gertatu zitzaion bezala, uzkur joan nintzen PUNTO Y HORA aldizkaria erostera. «Así no nació ETA» izenburuarekin, propagandak jakinarazten zigunez, José Luis Alvarez Enparanzak nik orain dela guti argitaratutako artikuloari erantzun bat zuen sinatzen. Egia esan, halako titulu nabarmena ikusirik, errepika sakon, luze eta zehaztasunez ongi hornitu baten zai utzi ninduen.**

Aitzitik, artikuloa irakurtzen hasi bezain fite, berehala konturatu nintzen lan hura ez zela serioa. «Así no nació ETA», Jose Luisek jakingo dituen arrazoiengatik, barne-hustutze bat besterik ez da; eritzi bezala errespetagarria, baina froga bezala ezer balio ez duena. Nere artikuloan agertzen den puntu bat besterik ez du arbuiatzen: hots, Jose Luisek, 1959-an Jose Antonio Agirrerengana Txillardegi eta J.M. Agirre joan zirela esaten duenean arrazoi guztia du, ez bait zen —nik idatzi nuen bezala— Jose Mari Benito del Valle joan. Dudan dokumentazioa ber-ikusirik honako hau irakurri ahal izan dut: «El 28, 29 y 30 de Abril, José Luis Alvarez y José Manuel Agirre Bilbao se desplazaron a París; hablaron con Agirre, Irujo, Landaburu y Leizaola». Beraz, Jose Luisek puntu honetan arrazoi guztia du, eta besterik ez, hemen bukatzen baita Txillardegiren argumentazio guztia.

1.-Txillardegik dionez, Jose Mari Benito del Valle, 1953 inguruan, ez zen Paris-en egon J. J. Rekondorekin. Jose Luis bera egon omen zen, bainan beste fetxa batean, 1955-an hain zuzen.

Nik ez dut esan horrelakorik; nik esan dudana zera besterik ez da: Benito del Vallek eskatu zuela kontakto bat, bainan ez bera Parisera joan zenik. «José Mari Benito del Valle, a título individual, solicita al Partido un contacto con algún estudiante en París, siendo Juan José Rekondo, antiguo miembro de EIA (Eusko Ikasle Alkartasuna), la persona designada para ponerse en relación con los de EKIN. La visita a París servirá par que Rekondo ponga en conocimiento de los miembros de este grupo que el Partido tiene cumplida información de la existencia de EKIN».

Jose Mari Benito del Valle, Luis Mari Retolazarengana joan zen propuesta honekin, eta, ere berean, eskatu zion kontakto bat Jaun Ajuriagerrarekin. Azken kontakto hau ez zen egin Ajurriagerra Lyon-en zegoelako; arrazoi horregatik esan daiteke 1953-an izan zela. Benitok eskatu egin zuen, bainan ez zen joan; ene ustez, Alfonso Irigoyen joan zen, edo horrela esan zioten EKIN-ekoek Retolazari. Jose Luisek aipatu beste kontakto hori, 1955-ean gertatua, nik bederen ez nuen



Julen Madariaga

ezagutzen eta oso interesantea izango litzake bisita horren zergatia argitzea.

2.-Txillardegik dionez, «nunca en EKIN ni en ETA, la presencia ha sido asumida por dos personas. Prácticamente siempre, era un colectivo de seis o siete personas el equipo directivo».

Nik esan nuena zera da: «La acusación es presentada en la Mesa Nacional de EGI, de la que forman parte José Luis Alvarez Enparanza, José Murua, José Mari Benito del Valle y Mikel Isasi (M. 82 garren orrian)». Ez dut aipatu ez EKIN eta ez ETA, eta fraseâren kontextoan argo ikus daiteke, ene irudiko, Murua eta Txillardegi ordezkari batzuk besterik ez zirela.

3.-Txillardegiren eritziz, «ekintza militarrei buruz esaten dena. Badirudi ia-ia zer egin ez genekiela; edo Alderdi-koen aldekoak zirela ekintza gogorretara pasatzearen aldekoak, eta EKIN-ekoak kontratoak. Alderdiak ba omen zuen EUSKO NAIA organizazioa («El PNV, además de órganos políticos, posee un brazo armado denominado EUZKO NAIA, formado por los antiguos jefes oficiales del Ejército Vasco»); eta, bestetik, biolentziaren aldekoa bide zen («en 1960, es decir un año más tarde a la formación de ETA, Patxi Amezaga, Mikel Isasi, Iker Gallastegi y Borja Eskauriaza permanecerían dos meses en Irlanda, aprendiendo técnicas guerrilleras de manos del IRA»). Arte horretan, ETA-n zalantza besterik ez omen zegoen: («No tiene nada de extraño que en 1959 y 1960 se ponga a debate en el seno de ETA el problema de adoptar una decisión en torno al tema de la violencia»). Hitz batez: biolentzia PNV-ak ekarri du, ETA-KO gandizaleen kontra; edor hor nunbait!!»

Hara nik idatzi nuena: «Con el nacimiento de ETA se inicia una nueva etapa sensiblemente diferente de la anterior, y en la que entre otros muchísimos problemas se va a debatir el de la violencia, salida que no nace con la organización ETA, ya que las exigencias por parte de los jóvenes de EIA y EGI hacia el PNV, en orden a que este se encaminara por el camino de la violencia y de la lucha armada venían de antiguo. Desde los años 1945 y 1946 hubo presiones en este sentido, presiones que el Partido trató de eludir. Los dirigentes nacionalistas no tenían confianza alguna en dicha posibilidad. Consideraban que era un camino sin salida, sumamente difícil de controlar y, a la larga, en nuestro contexto, claramente perjudicial para los intereses del País. Estas razones, sin embargo, no eran fácilmente asumidas por la juventud, y las discusiones fueron frecuentes, viéndose obligado el Partido en alguna ocasión a admitir algunos intentos, aunque —todo hay que decirlo— sin fe ninguna en sus posibles resultados. Buena prueba de lo que decimos es que en el año 1960; es decir, un año más tarde a la formación de ETA, Patxi Amezaga, Mikel Isasi, Iker Gallastegi y Borja Eskauriaza permanecerían dos meses en Irlanda, aprendiendo técnicas guerrilleras de manos del IRA, organización con la que Iker Gallastegi, por mediación de su padre —Eli Gallastegi—, tenía algún tipo de relación. A su vuelta, Patxi Amezaga será detenido, coincidiendo en la cárcel con sus antiguos compañeros de EGI, entonces ya en ETA,



J.M. Aguirre

asimismo detenidos a raíz del intento de descarrilamiento del tren.

«No tiene por tanto, nada de extraño que en 1959 y 1960 se ponga a debate en el seno de ETA el problema de adoptar una decisión en torno al tema de la violencia, existiendo sectores de la organización más inclinados hacia métodos de resistencia pacífica de tipo gandiano,tal y como lo explicamos con anterioridad. A este fin, el de debatir el tema, se convoca en Deva una reunión de la mesa de ETA, reunión a la que asisten Txillardegi, Larramendi, Benito del Valle y Madariaga. Este último, responsable de la sexta, sorprenderá al resto con la noticia de que la víspera había hecho explosionar varias cargas. El enfrentamiento que se origina es brutal, pero Madariaga aplicaría la política de los hechos consumados (M. 89 garren orrian)».

Jose Luis-i galdera hauek egingo nizkike: 1957-arte, EUSKO NAIA-ren existentzia egia ahal da, bai ala ez?... 1960-an IRA organizazioa-rekin edukitako harremana egiazkoa ahal da, bai ala ez?... EKIN-en edo Jose Luis-en garaiko EGI-en zen biolentzia ekintzat egin ziren?... ETA-ren hasieran, egia ahal da debate bat izan zela biolentziari buruz, bai ala ez?... Egia ahal de Deban gertatua, bai aka ez?...

4.-Txillardegiren ustez, «behin eta berriz esan denez, Eusko Gaztedi izena aldatzearen kakoa, hain zuzen ere, biolentziara pasatzeko askoak ekarri zuen: E.G.-ren inguruan zegoen saltsa (saltsa ikaragarria) ez zen gauza ona ekintza gogorrenetan hasteko... Baina eztabaida hori geure artean izan ondoren (1959-aren inguruan, oker ez banago), seigarren adar sortzeko erabakia hartu genuen".

Sarritan esan baldin bada ere, ez da egia. ETA ez zen sortu biolentziara pasatzeko, ez bait zuten arlo honetan istilurik Alderdia-rekin. Jose Luis-i jarraituz, badirudi Alderdiak biolentziari egindako ezezkoaren ondorioz sortu zela ETA organizazioa, eta hori ez da egia. Seigarren adarra ez zen —nahiz eta Jose Luisek bestela esan— 1959-an sortu, baizik eta 1957an eta EGI-an barnean, nere artikuloan 86 garren orrian explikatzen den bezala. Areago, hara zer zioen ETAk 1964-an egindako informe batean: «Dos E.G. se enfrentaron alegando cada uno su legitimidad, hasta que al cabo de unos meses los del antiguo EKIN, tras un supremo intento final que resultó tan infructuoso como los anteriores, decidieron abandonar el nombre de EGI que habían ostentado durante el período de unión así como durante algunos meses después de la ruptura y adoptar el de ETA. Era a principios de 1959».

5.-Txillardegik dionez, «Beste puntu harrigarri bat: ideologiari dagokiona. Ibarzabal irakurrita, horrelako arazorik ez zegoela dirudi: («EKIN, muy a pesar de



Benito del Valle

las interpretaciones que se le han dado con posterioridad, no disentía del PNV en ningún aspecto programático»). Eta hau ez da egia".

Hara nik Muga-n esaten nuena: «EKIN, muy a pesar de las interpretaciones que se le han dado con posterioridad, no disentía del PNV en ningún aspecto programático, pero resultaba evidente que las divergencias de tipo ideológico anteriormente señaladas continuaban existiendo, por lo que no tiene nada de particular que estas quedaran reflejadas en las publicaciones cladestinas de EGI».

6.-Txillardegik, «Ibarzabal irakurrita gu ikaragarrizko kulturalistak ginen. Hona zer dioen: «No creemos malinterpretar el pensamiento inicial de los hombres de EKIN si decimos que por su mente corría un plan de vasquización y culturización generalizada del País». Hau guztia Ibarzabal-i zer zaion argi eta garbi esaten digu: («Era un modo más o menos honorable de rehuir el compromiso político»).

Alde batetik, Alvarez Enparanzak beharko du frogatu hasieran aipatzen den EKIN-en asmo edo projekto hori gezurra den ala ez, eta bigarrenik, berriz, eskatuko nioke fraseak diren bezala aipatzea. Nik idatzi nuena honako hau da: «Además, en los círculos clandestinos de la época, dedicarse a aspectos culturales y euskérikos era un modo más o menos honorable de rehuir el compromiso político, opinión esta que no ha dejado de tener funestas consecuencias posteriormente».

7.-Txillardegik aurrerago: «1956-1957-an, ordea, gure eszisioa zela-ta, tentsio handia zegoen. Gu «komunistak» omen ginen. Eta, Muruaren eraginez hein handi batez, ideologi arazorik ezer ez esatea erabaki zen»...

Alvarez Enparantza jaunak sinetsi-arazi nahi digu «komunistatzat» hartuak izan zirelako gertatu zela eszisio famatua?... Hori ez da egia. Nola pentsa zitekeen Jose Murua komunista zenik?... Askotan aipatu izan du Jose Luis-ek argumento hori, eta argitu nahiez, zenbait jendearengana jo dut, bai EKIN-ekoa eta bai PNV-ekoa. Erantzuna ia-ia berdina izan da kasu guztietan; hots, halako kritikak izan ziren, bainan ez zuten garrantzirik izan. Bi persona izan ziren bereiziki aipatuak: Bizkaian, hasieran, Mikel Barandiaran, eta Gipuzkoan, azken momentuan, Paco Iturrioz. Eta besterik ez. Berriz diot: eszisio garaian argumento horrek ez zuen bat ere garrantzirik izan.

8.-Geroxeago Txillardegik horrela esaten digu: «esaldi hau («nos atrevemos a afirmar que sin la ayuda prestada por Servicios, EKIN difícilmente hubiera podido desarrollar una auténtica organización»), benetan gehiegitxo da. Alde batetik egia ez delako. Gauza bera idatziko luke agian FLP-ko historiari ofizial batek: «Sin la ayuda prestada por Bordonaba, Leunda, Uresburueta, etc. ETA hubiera desaparecido»...

Beti bezala, kasu konkreto hontan era, Jose-Luis-i ahaztu egiten zaio interesatzen ez zaiona. Afirmazio hori egiteko nik argumento batzuk erabili ditut, eta konklusioa arbuiatzeko, ezer baino lehen, nere zergatiak arbuiatu behar dira. Gogora ditzagun, beraz. «Muy pronto los de EKIN comprobarán sorprendidos que EGI de Guipúzcoa tiene una entidad y un vigor muy superior al que ellos hubieran esperado, pero sobre todo observan que Murua les aporta una ayuda que no hubieran podido anteriormente sospechar. En efecto, además de los enlaces en los diversos pueblos, Murua cederá una multicopista offset, no excesivamente común por aquellas fechas e infinitamente mejor a las de alcohol —denominadas «ajedrez» en la terminología de EKIN—, les organizará el pase de frontera, facilitará la impresión de la propaganda en París, así como aportará algo que resultaría mucho más importante: las normas de seguridad fundamentales, de las que EKIN carecería y que les permitirían crecer a una velocidad infinitamente superior. La tela de araña la crean los de EKIN, pero no hubiera sido posible sin la colaboración de Murua, hasta el punto de que nos atrevemos a afirmar que si la ayuda por Servicios, EKIN difícilmente hubiera podido desarrolar una auténtica organización».

9.-Bukatzeko, Txillardegik, eta azken arrazoi bezala, honela galdetzen digu: Nola liteke, beraz, antikomunistak «komunistak» laguntzea?...

Oso gauza erraza: «komunistak», benetako komunistak ez zirelako.

Gainontzeko Jose-Luis-en eritzietaz —laido eta gezurrak— ez dut ezer esango. Herrial nahi duen momentoan juzgatuko gaitu; bitartean, nik eta nere «gogaideak» ez ditugu polemikak esango personaletan bihurtuko. Beste bat arte.

**Eugenio Ibarzabal**